

# noaua

**Usurbilgo Ernaik  
elkartasuna adierazi die  
Altsasuko gazteei**

**Gure Esku Dagok  
“spot” bat grabatuko  
du igandean**

**Udarregi Ikastolaren  
50. urteurrenak badu  
bere soinu banda propioa**

**Lourdes Mancisidor  
pediatrak erretiroa hartu du**

**“Eskerrik asko guztiagatik”**



# Escocia



943 373 613

## IRTEERA IRAILEAN

Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.



## FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

**AZKEN ETXEBITZA!!!**

## LANAK AMAITUTA

- Orain etxea erosterakoan garajea opari.
- (Ate automatikoarekin itxitako garajeak)
- Sukaldeak muntatuak.
- Kalitate onekoak.
- Leku pribilegiatua.
- Bisita, konpromisorik gabe



[contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

LANIN ETXEBIZITZAK  
943468860 / 670828696

## Albiste iruditan



Ez ditu edonork eta egunero 100 urte betetzen. Ondoko irudiko usurbildarrak bai. Mendea bete du Joxepa Anttoni Urteaga Barandiaran herritarrak. Martxoaren 25ean, bere urtebetetze egunean, opari eder askoa jaso zuen Joxepak Usurbilgo herriaren izenean, Xabier Arri-eko alkatearen eta Jone Urdanpilleta zinegotziaren eskutik; Zumetaren sortze lan ederra. Zorionak! Irudia: Usurbilgo Udala.

## Laburrean

### Errigoraren produktu bilketa

Olio bidoiak apirilaren 10etik 13ra jaso beharko dira NOAUA! K.E.-ren egoitzan. Kontserbak ekainean. Produktuok jasotzerako unean egin beharko dira ordainketak.

### Apirilaren 21ean, 1968ko kinto bazkaria

Atxega jauregian batuko dira. Izena emateko azken eguna apirilaren 10a izango da. Deitu edo whatsapp bidezko mezua bidali 696 411 683 telefono zenbakira.

### Euskaraldia antolatzeko batzarra

Euskal Herri mailako ekimena Usurbilen ere antolatuko da. Hurrengo batzar irekia apirilaren 17rako iragarri dute, arratsaldeko 18:00etan Potoxoenean.

# noaúa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eu ||| www.noaúa.eu  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaúa.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaúa.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon  
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis  
Elortza, Pello Aranburu, Xabier  
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-  
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen  
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta  
Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
ISSN: 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herra!



Imanol Ubeda

## Keinuak

Eskerrik asko etortzeagatik. Aurrerantzean, Jose Ubeda Sánchezen hezurrek hemen hartuko dute atsedean.

Kutxa honetan, pertsona baten hezurak daude. Jose Altsasun bizi zen eta bertan egiten zuen lan. Bake Epaitegian eta tren geltokian. UGT-ko kide ere bazen. Emaztea eta bi seme zituen atxilo eraman zutenean.

Kutxa hori, hezur horiek, basakeriarekin ikur ere badira. 1936ko gerran, nazionalak Altsasun sartu zirenean, hainbat lagun atxilotu zituzten. Tartean, Jose Ubeda Sánchez. Atxilo eraman, egun gutxira erail eta Otsoportilloko leize batera bota zuten gero. 1936ko abuztuan izan zen hori. 2018ko martxora arte

itxaron behar izan dugu. Hezurak topatu, zulo beltzetik atera eta Aranzadikoek gure etxeko DNArekin identifikatu arte. Sakana aldean betidanik uste zena egiaztatuz, bide batez esanda. Hala ere, kasua argitze-ko 82 urte pasa behar izan dute.

Hortaz, kutxa horrek, hezur horiek, beste zerbait ere adierazten dute. Bilaketa baten eta aurkikuntza baten emaitza da. Desagertuak aurkitzeko, jende askok urtetan eta urtetan egin duen ahaleginaren ikur da kutxa hori. Jose Ubeda Sánchez eta bera bezala desagertuta egon direnen bila aritu diren horiei esker, gu garai ilun bat ixten hasi gara. Gure hurrengo belaualdiak beste zama batzuk kudeatu beharko ditu. 36tik dakargun motxila hau behintzat, ez

dute jasoko herentzian.

Garai ilun bat ixten hasi gara. Baina gaurko eguna berandu dator. Oso berandu. Jendea falta da hemen. Bere aitona non eta nola desagertu zen jakin gabe hil zen gure aita.

Egun hau berandu iritsi da. Baina iritsi da. Eskerrak eman nahi dizkiegu Aranzadikoei eta batez ere Nafarroako Gobernu-ko kideei. Bilaketa lanetan baliabideak ipintzeagatik. Eta baliabideekin batera, borondate irmo bat azaltzeagatik. Eskertze-koak dira biak. Baliabideak eta borondatea.

Gu garai ilun bat ixten hasi gara. Beste familia askok, tamalez, bila jarraitu beharko dute. Beraz, eskaera hori baino ez. Segi horretan. Kasu asko argitzeke daude oraindik.

2018ko martxoaren 10ean, antzekorik aipatu nuen Altsasuko hilerrian. Horregatik ipini dut kurtsiban. Egun horretan, kolunbario batean sartu genituen birraitonaren hezurak. Etxekoekin batera, Nafarroako Gobernu-ko hainbat ordezkari bertaratu ziren. Ana Ollo Herriarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria eta Josemi Gastón Memoria Historikoa saileko zuzendaria. Altsasuko Udaletxearen ize-nean, Javier Ollo alkatea (Geroa Bai), EH Bilduko zinegotzi bat eta UPNko beste bat. Ez genuen ordezkari-tza instituzionalik espero eta eskertu genuen. UPNko zinegotziak emandako urratsa nabarmendu nahiko nuke. Bizikidetzaren izenean. Non eta Altsasun.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

### Ika-mika

## Ez dadila murrizketarik egon

Gipuzkoako Foru Aldundiak pasa den urteko abuztuan argitaratu zuen Buruntzalderako autobus zerbitzuei zuzendutako aurreproiektua. Bertan, dakizuenek, murrizketa nabarmenak proposatzen ziren. Hau onartezintzat joaz, 4.000 alegazio inguru aurkeztu ziren eta 7.000 sinadura bildu. Ezin ahortzirik, gai honen harira herritarrek egindako hainbat agerraldi eta mobilizazio.

Bitarte honetan egunak aurrera joan dira, eta non gelditu dira Aldundiak alegazioei burutu beharreko erantzunak? Zertan dago aurreproiektu/proiektuaren egoera? Zergatik halako opakotasuna? Non dago hauteskunde kanpainetan ahoan darabilten kudeaketa gardena? Gure egunerokoan eragin zuzena duen gai honen inguruan, herritarrok ez al dugu eskubiderik jakiteko zertan dagoen istorio hau?

Aurreproiektua onargarria ez den bezala, Aldundiaren jarrera ere onartezina da. Beste behin ere, herritarroi bizkar eman ez gabe, hainbat proiektu erabaki eta aurrera atera nahi dira. Inposaketaz inposaketa jarraitzen dute eta adibideak ez dira falta.

Enplazamendu zuzena egiten diogu beraz, Foru Aldundiari:

-Utz dezala bertan behera aurreproiektua.

-Instituzio publiko bezala, lehenetsi dezala herritarren ongizatea. Berma dezala gutxienez egun garraibide publikoek eskaintzen duten zerbitzua eta ez dadila murrizketarik egon.

-Alboratu ditzala ikuspuntu ekonomizista soilak eta jar dezala helburu nagusi gisa jendarteari eskaintzen zaion zerbitzua eta berauen kalitatea.

### Murrizketarik Ez! Plataforma

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

## Usurbilgo Ernaik bat egin du Altsasuko gazteen aldeko manifestazioarekin

**A**ltsasuko 3 gazteek 500 egun baino gehiago daramatzate epaitu gabe eta espetxean, 2016ko urrian Altsasuko taberna batean izandako gertaerengatik. Haiekin batera beste bost gazte ere terrorismo delitua egotzita epaituko dituzte apirilaren 17tik 27ra Espainiako Auzitegi Nazionalan. Fiskalak 50na urteko espetxe zigorra eskatzen die sei gazteei, 62 urtekoa eta 12 urtekoa beste biei.

Bizi duten egoera salatu, egozten zaien terrorismo delituaren kalifikazioa ezabatu, epaiketa Iruñean egin dadin galdegin eta Altsasuko gazteei elkartasuna adierazteko manifestazioa deitu dute larunbat



Larunbatean egingo da manifestazioa Iruñean. Argazkia: Ernai Usurbil.

honetarako, apirilaren 14rako Iruñean. Golem zinemetatik abiatuko da mobilizazioa, arratsaldeko 17:30etan, "Terrorismoa ez da. Justizia" aldarripean. Ernai Usurbilek ere bat

egin du manifestazioarekin, azken egunotan plazan ateratako ondoko argazkiarekin.

**Informazio gehiago:**  
altsasugurasoak.com

### Apirilaren 18an, haur minbiziari buruzko hitzaldia

Hitz Aho, Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak apirilaren 18rako 17:00etan Udarregi Ikastolan antolatutako solasaldian haur minbiziaren inguruko errealitatea ezagutzeko aukera izango da, ASPANOgi elkarteak ki-deen eskutik; emozioak, familia, hezkuntza, ekonomia, lana, gizarte harremanak... "Hitzaldi honetan zuen itxaropena eta parte hartzea bultzatu nahi dugu, denok elkarturik lagundu diezaiegun Aspanogiko pirata eta familiei".

#### Udarregi ikastolan

- Apirilak 18 asteazkena.
- Arratsaldeko 17:00etan.
- Antolatzailea: Hitz Aho.

### Ika-mika

## Gema Gonzalez de Txabarriri eskutitz irekia

Gema Gonzalez de Txabarriri, Gipuzkoako Hezkuntza ordezkari hori: hasteko, eskertu nahi dizugu hirugarren aldi honetan Landaberriko irakasleoi erantzuteagatik. Hala ere, gure zentrutik kilometro eskaseko distantziara eraikitzen ari diren errauskailuak irakasleonek eta ikasleen osasunean eragin litzazkeen ondoriez argibideak eskatu genizkizun eta hauxe erantzun duzu: "Ordezkaritza honetako ekimen eremua gainditu egiten du".

Ez dugu onartzen zure erantzuna. Hezkuntza buru zaren heinean, badagokizu ere ikastetxeetako osasun bal-

dintza egokien bermatzaile izatea.

CSIC-en Espainiako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusian ari diren Eduard Rodriguez eta Fernando Palacios ikerlariak berriki jakitera eman dutenez, Zubietako erraustegiaren ingurumen baimen bateratuak gabedia handiak ditu, ez dituelako aintzat hartu hainbat substantzia arriskutsu, horien artean metal astunak.

Errauskailuak sortuko litzuzkeen dioxinak, nitrogeno oxidoak, eta arsenikoa arnastuko genuke.

Ikastetxean jarrita genituen eta errauskailuarekiko kezka adierazten duten pankartak

kentzeko agindua eman zenuen, ordea. Eta hori bai, zure ekimen eremutik kanpo dagoela, Hezkuntza Ordezkaria. Administrazioaren otsailaren 13ko 1/2003 jarraibidearen arabera, ez duzu horretarako eskumenik. Berez, Lasarteko Udalarai baitagokio eraikinaren inguruko baimen edo agindua ematea.

Gure praktika pedagogikoan ikasleak beren kabuz pentsa dezaten hezten ditugu, gaien inguruan galderak egitera animatzen ditugu eta beren irudipena adieraz dezaten aukera emanez ere jarduten dugu. Aldi berean, hondakinen ku-

deketan engaiatuta gaude. Hori dela eta, ezin dugu onartu ikasleekin bereizten ditugun plastikoak erraustegira bidera ditzatela.

Azkenik, zuek gure Ikuskaritza jaso ditugun presioen aurrean, jakitera eman nahi dizugu ere, gure kezka bere horretan dirauela eta pankartek jarrita jarraitzen dutela gure ikastolan.

Adeitasunez,

**Maripe Arruiz, Marijo Vivas, Xabi Zendoia eta Iñigo Aldabaldetretu. Landaberri ikastolako irakasle kezkatuen izenarekin.**

# Kataluniako azken atxilotu eta espetxeratuei babes

**K**ataluniako herriari eta Kataluniako herritarren ordezkari politikoei elkartasun eta babes osoa adierazi zieten usurbildarrek martxoaren amaieran. Batetik, Usurbilgo Gure Esku Dagoren ondoko irudian ikus dezakezuen moduan, martxoaren 25ean frontoi atzean egin zen elkarretaratzearen bidez.

“Demokrazia” aldarriaren bueltan bildutako herritarrek, azken egunetan izandako atxiloteta eta espetxeratzeak salatu zituzten, aipatu moduan, Kataluniako herriari babes adieraztearekin batera. Usurbilgo bezala, eguerdi parte horretan Euskal Herri luze zabalean beste hamaika mobilizazio egin ziren, Gure Esku Dagok, EHBilduk, ELA, LAB, ESK, STEILAS, HIRU, CNT, Etxalde eta EHNE sindikatuek deituta, “Kataluniarekin bat, demokrazia, askatasuna” aldarripean.

Gai zerrendan aurreikusia ez zegoen arren bestalde, martxoaren 27an egin zuten osoko bilkuran, katalanen ordezkari politikoen azken espetxeratzeen eta Carles Puigdemonten atxilotetaren aurkako adierazpena onartu zuen udalbatzak, EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ abstenu zen eta PSEko zinegotziak aurka bozkatu zuen. Honela dio, izatez adierazpen instituzional gisa onartzeko udal gobernu taldetik proposatu zuten testuak:



Martxoaren 25ean elkarretaratzea deitu zuen Gure Esku Dagok. Mikel Laboa plazara lagun ugari bertaratu ziren.

## MOZIOA

**“Usurbilgo Udalak babes eta elkartasuna adierazten die Jordi, Carme, Raül, Jospe eta Dolorsi, bai eta beste kartzelaratuei eta atzerrira ihes egingandako guztiei”**

“Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Jospe Rull eta Dolors Bassa kartzelaratzea dimentsio politiko izugarria duen gertakaria da. Herritarrek aukeratutako ordezkari politikoak atxilo hartzea onartezina da demokrazian. Usurbilgo Udalak, batetik, kezka eta

erabateko arbuioa adierazten du kartzelaratze horiengatik, eta bestetik pertsona horien oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen direla salatzen du. Soilik arrazoi politikoen motibazioa eta bultzada dago atxilotze eta kartzelaratze horien atzetik.

Usurbilgo Udalak babes eta elkartasuna adierazten die Jordi, Carme, Raül, Jospe eta Dolorsi, bai eta beste kartzelaratuei eta atzerrira ihes egingandako guztiei. Denak libre utz ditzaten eskatzen dugu buruz, bihotzez, eta irmoki.

Era berean arbuiatzen dugu Carles Puigdemonten atxiloteta, erabaki horrek ere oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratzen dituelako. Carles as-

katzea eta euroagindua bertan behera uztea eskatzen dugu.

Estatu espainolari eskatzen diogu oinarrizko askatasunen aurkako estrategia errepresiboa bertan behera utz dezala, demokraziaren funtsezko printzipioen kontrakoa delako.

Kataluniari elkartasuna helarazi nahi diogu, arazo politikoaren eta errepresioaren jomuga Kataluniako gizarte osoa baita.

Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko gainerako herriek bezalaxe, bere etorkizun politiko erabakitzeko zilegitasun demokratikoa du, herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutenaren araberak.

## Alokairu sozialeko etxebizitzaren esleipena

13 eskaera aurkeztu dira, Gernika ibilbidea 13ko alokairu sozialeko etxebizitza bat zozketa bidez esleitzeko deialdira.

Eskaerak banaka aztertu ostean, 10 onartu eta 3 baztertu ditu Udalak, web orri bidez berri eman dutenez.

Onartu eta bazterturiko es-

kaeren behin behineko zerrendak ikusgai jarri zituen Udalak martxoaren 23an udaletxeko iragarki taulan, interesdunek, beharrezkotzat joko balute,

erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Aurrerago, zozketarako behin betiko zerrendak onartuko ditu Udalak.

# Tren eta errepideko pasabideetako segurtasun falta hizpide, azken plenoan

**E**AJ-k gai honi buruzko mozioa aurkeztu zuen, martxoaren 27an egin zen osoko ohiko bilkuran. Zehazkiago esanda, Troiako pasabidearen gaia hartzen zuen ahotan.

Hiru puntuko testuan, udal gobernu taldeari eskatzen zioten, zonalde horretan N-634 errepidea zeharkatu ahal izateko "Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura departamentuak planteaturiko pasabide semaforizatua gauzatu dadin, elkar lanari ekin diezaiola". Horrekin batera, "proiektu honetan udal eskuduntzakoak diren gaiak bere gain hartu ditzala" eta "ETS-rekin trenbidea gurutzatzeko pasabidearen soluzioa, finantzaketa eta epeak berretsi ditzala".

## EHBildu, aurka

Jeltzaleek ez dute ez zentzuzkotzat ezta errealtizat



Troiako balizko pasabideak udal ordezkarien arteko eztabaida piztu du.

## EAJ

**Martxoaren 27an aurkeztu zuen mozioaren bitartez, bere interesak alboratu eta dagokion erantzunkizunari aurre egitea eskatu zion EAJk udal gobernuari**

jotzen udal gobernu taldeak Troian "2,4 milioi eurotako oinezkoen pasabide bat gauzatzeari". Bere interesak alboratu eta dagokion erantzunkizunari aurre egitea eskatzen zioten mozio bidez. EAJ eta PSE-k babestu zuten testua ez zen onartu, gehiengo osoa duen EHBilduko ordezkariak aurka agertu baitziren.

## Herri gisa erantzuteko deia udal gobernutik

Udal gobernu taldetik tren nahiz errepideko pasabideetako puntu beltzen gaiari irtenbide duin eta osoa ematea lehentasunezko zat jotzen dute. Herri gisa jarduteko deialdia egin zuen alkateak. Eragile politikoak, herritarrak eta udal teknikariak elkarlanean jardun, eta hortik, gai honi denen artean konponbide adostu bat ematea ahalbidetuko lukeen lan talde bat osatzea proposatu zuen EHBilduk osoko bilkura berean.


EAJ-k egin ezinezkotzat jotzen duena, Eusko Trenbide Sareak landutako proiektua dela, proiektu oso serioa, eta aurrez

salatu izan duen moduan, Foru Aldundia dela proiektu hau finantzatu nahi ez duena. Aldundiak egitasmo hau finantzatzeari uko egin zionetik, egoera nabarmen zaildu dela zioten EHBildutik azken plenoan, ordutik erakunde bakoitza bere aldetik ari delako konponbidea lantzen. Horren erakusgarri Udalak azken aldiari jasotako konponbide proposamenak; batetik, Aldundiarena. Troian zebra bide bat egin eta semaforo bat jartzekoa. Bestetik, ETS-ren proposamena, trenbide pasagunean barrerak jartzeari, EHBildutik ziotenez, "ez baita go prest goiko pasarela osorik

berak bakarrik ordaintzeko". Konponbidea hau ote den galdetzen zuten udal gobernu taldetik.

## Proiektu bateratu baten alde

Horregatik ezinbestekoa iruditzen zaio udal gobernu taldeari, gai honi, oinezkoen eta bizikleten joan etorriak egoki eta seguruak izatea sustatuko duen konponbide integral bat ematea elkarlanean, proiektu bateratu eta koordinatu bat abiatuz. Horretan ahalegintzen ari direla nabarmentu zuten. Udala, ETS eta Aldundia bateratuko lituzkeen bilera bat antolatu nahian dabilta.



## Tipi Tapako zozketan saritutako zenbakiak

Segidan dituzue martxoaren 25ean ospatu zen onddodun Tipi Tapa amaieran egin zuten zozketako zenbaki sari-tuak. Albiste honen ondoan, ekimen bereko otsaileko edizio amaieran egin zuten zozketako sarituen argazkia, Hurbilago Elkartetik helarazi digutena. Usurbilgo ostalari eta merkatarien elkarteak dirutan sariak banatzen segitzen du, hilerio herriko tabernetan barrena ibilbide gastronomikoa osatzen dutenen artean.

Honatz martxoko Tipi Tapako zenbaki sari-tuak:

- 1-150 euroko erosketak balea: 1021.
- 2-20 euroko erosketak balea: 255.
- 3-20 euroko erosketak balea: 233.

## Erroizpe elkarteko batzarra

Txokoaldeko Erroizpe elkar-teak urteroko bazkideen batzar nagusia iragarri du apirilaren 22rako (igandea). Lehenengo deialdia goizeko 11:00etarako finkatu dute, bigarrena ordu erdi beranduarago, 11:30etarako.

## Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

Alkartasuna Kooperatibak antolatutako ikastaro praktikoko hurrengo saioa, apirilaren 21ean, 09:00-13:00 artean Potxoenean. "Ilargia eta egutegi biodinamikoa" saioa, Xabier Akizurekin. Aurrez eman izena, bideotatik: 943 361 114 [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) [alkartasuna.eus](http://alkartasuna.eus)

# Joxan Artzeren unibertsoa San Telmora itzuliko da berriro

2016ko ekainean Potxoenean izan genuen “Ikimilikiliklik, J.A. Artzeren unibertsoa” erakusketa Donostiako San Telmo museoko Laborategian bisitatu ahalko duzue berriz, apirilaren 18tik maiatzaren 20ra. Ordutegi honetan zabalduko dute, irudi, musika eta soinu mundu baten bidez, Artzek 40 urte baino gehiagoan zehar garatutako lan poetikoan murgiltzea ahalbidetzen duen erakusketa: 10:00-20:00 artean, asteartetik igandera. Sarrera doakoa izango da.



2015 urteko azaroan inauguratu zen erakusketa San Telmo museoa. Beste herri batzuetan ipini zen gero, tartean Usurbilgo Potxoenean. San Telmora bueltatuko da erakusketa. Apirilaren 18tik aurrera egongo da bertan ikusgai.

Erakusketa hau antolatuta, Artze hil zen egun berean aipatu museoak sare sozialean bidez iragarritakoa beteko du. Erakusketa honen bidez omen du asmo du San Telmok, urte hasieran zendu zen sortzaile usurbildarra. Erakusketa honen baitan, hain zuzen, ekitaldia deitu dute apirilaren 24rako.

**Informazio gehiago:**  
santelmomuseoa.eus

**Herri omenaldia**  
Gogoan izan bestalde, Joxan Artzek merezitako herri omenaldia jasoko duela laster. Prestaketa lanak martxoan

abiatu zituen hainbat eragileetako ordezkariak, Potxoenean egin zuten lehen batzarrarekin. Apirilaren 10ean zuten egitekoa bigarren bilera.

Laster dira iragartzekoak, herri omenaldi honen data zehatza.

## Tosta Bandaren kontzerturako gonbidapenak Lizardi dendan eskura daitezke

Jexux Artze K.E.-ren eskutik, herrialde ezberdinetako (Euskal Herria, Galiza, Eskozia, Irlanda...) 10 musikari eta abeslariz osaturiko Tosta Bandak apirilaren 25ean 19:30etan Sutegin eskainiko duten entsegu moduko kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute usurbildarrek. Ema-

naldirako gonbidapenak aurrez eskuratu ahalko dira Lizardi liburu dendan. Edo kontzertu egun berean Sutegin. Tosta Bandako Euskal Herriko kideen artean ditugu, Txokoaldeko Txalparta Txokoa kudeatzen ari den Oreka Tx taldea, Iñigo Egia, Mixel Ducau edota Ixi Jauregi.



Apirilaren 25an arituko dira Sutegin.

### Igandean txotxongilo

#### ikuskizuna Sutegin

Maitena Illaramendiren “Gatz basatia” ikuskizuna igande arratsalde honetan, apirilaren 15ean, 17:00etan Sutegiko auditorioan. Usurbilgo Udalak antolaturiko emanaldirako sarrera 2 eurotan eskuratu ahalko da. “Gatz Basatia titiritorto bat da. Bertizeko oihanaren sakonean bizi diren izaki bitxiak dira titiritortoak. 40 zentimetro neurtzen dituzte gutxi gora behera, begi bakarrak, berdeak eta horiak, isats luze batekin. Basoan kamuflatzen dira, horregatik buruan ilearen ordeztuak landareak dituzte, batzuetan basafruitu eta guzti. Zuhaitzen barruan bizi dira, okilek egindako zuloetan”.

### Alejandro Tapiaren lanen erakusketa Donostiako Ekain galerian

90. hamarkadatik aurrera sortutako paper, olio, eta eskultura lan bilduma ikusgai izango duzue apirilaren 22ra arte, Donostiako Alde Zaharreko Iñigo Kalea 4an kokatua dagoen Ekain Arte Lanak galerian.

**Ordutegia:**  
11:30-13:30 / 17:00-20:30  
(asteartetik larunbatera).

**Informazio gehiago:**  
ekainartelanak.com

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**Otar-Goxo**  
El ikagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ORDUTEGI BERRIA:  
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182



# Ikastolaren 50. urtemugaren soinu banda prest

Ikastolaren 50. urtemugari doinua jarri diote. 12 kantez osatutako diskoa grabatu berri dute ikastolako komunitateko egungo kideek eta kide ohiek. “Kantariak, ikastola osatzen duten oro izan dira, ikasle, ikasle ohi, guraso, guraso ohi, aiton-amonak, irakasleak, irakasle ohiak eta langileak. Instrumentu joleen artean ere, ikastolako guraso, irakasle, zein ikasle eta ikasle ohiak izenda ditzakegu, tartean, oso ezagunak diren instrumentu joleak”, ikastolatik NOAAU!ri berri eman diotenez.

“Usurbilgo ikastolan abesten dituzten kantak grabatu dira. Kanta alaiak, kanta ederrak... txirularekin jotzeko kantak, irakasleek sortutakoak, ikasleek sortutakoak... eta Gattunk kanta”.

Ikastolako musika gelan grabatu zuten diskoa joan den hilabetean zehar. Moldaketak Jaione Eskudero ikastolako musika irakasleak egin ditu. Udarregiko guraso ohi Kaki Arkarazo arduratu da grabaketaz.

Abestien artean, bada bat ikasle ohiena. Luken Arkarazok sortu du doinua eta letra, “ikasle ohien artean moldatuta, eta Martxel Arkarazo teknikari lanetan jardunez Garate estudioetan”. Kanta guztion nahasketan Kaki Arkarazoren Andoingo Garate estudioetan egin dituzte. “Kanta hauek edonoren belarrietara gozo sartzea lortu dute ikastolako



Ikastolako musika gelan grabatu zuten diskoa joan den hilabetean zehar. Argazkia: Udarregi Ikastola.

## UDARREGI IKASTOLA

**“Usurbilgo ikastolan abesten dituzten kantak grabatu dira. Kanta alaiak, kanta ederrak...”**

kantari eta musikariek, kanta bakoitza mimo, gogo, intentzio eta maitasun handiz egin dago. Adin guztietako pertsonentzat zuzendua dago”.

Eginiko lanketaren emaitza ezagutzeko aste gutxi baino ez dira falta. Ikastolatik aurreikusituen dutenez, hilabete amaieran plazaratuko dute. Apirila amaieratik aurrera izango duzue eskuragarri 6 eurotan, Lizardi eta Laurok liburu dendetan, Bordatxo tabernan eta Udarregi Ikastolan.

## Bertso bazkaria

Ikastolaren mende Erdiko ekimenen artean, hurrengo hitzordua, larunbatean, apirilaren 14an. Bertso-bazkaria antolatu du ikastolak Bota Punttuba bertso eskolarekin elkarlanean. Punta puntako bi bertsolari gonbidatu dituzte larunbatean 14:30etik aurrera ikastolako jangelan ospatuko den hitzordura: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña. Txartelak 15 eurotan eskura ditzakete ikasle eta langabetuek, gainerakoek 20 eurotan, apirilaren 12a baino lehen, Aitzaga eta Bordatxo tabernetan, edo ikastolako idazkaritzan. Honatx dastatu ahalko den menua: entsalada epela, onddo nahaskia, haragi gisatua, jogurt eta fruitu gorrien moussea.

## Ate irekien eguna Haur Eskolan

2018-19 ikasturtean matrikulatzeko garaia badator. Apirilaren 16tik 27ra bideratu ahalko dira inskripzioak. Deialdia, 2016, 2017 eta 2018an jaiotako haurrei zuzendua dago. Adi bulego orduetegiari: 9:30-12:30. Epe honen baitan, Haur Eskolako instalakuntzak eta bertako zerbitzua ezagutzeko aukera izango da, hurrengo astelehenerako, hilaren 16rako antolatu duten ate irekien egunean. Bi saio iragarri dituzte: 17:30ean euskarazkoa, 18:30ean erdarazkoa.

### Argibide gehiagorako:

943 374 061  
haureskola@udarregi.eus

**Josue**  
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak

649 43 54 75  
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

AMA, EZ LARRITU TA DEITU XABIERRI, ETXETRESNAK KONPONTZEN DITU

645 417 665

# Errenta Aitorpena euskaraz bideratzeko deia

Ogasunarekin diru kontuak argitzeko garaia heldu den honetan, Errenta Aitorpena euskaraz tramitatzeko deia egin du Usurbil kide duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), baita eskualdeko, Buruntzaldeko Udalek ere. Errenta Aitorpena bideratzeko epea zabalik dagoen honetan, kanpaina paralelo bat abiarazi dute herritarrak tramitazio hau euskaraz egitera animatzeko eta herritarrek administrazio publikoarekin dituzten harremanak euskalduntzeko.

“Izan ere, errenta aitorpena euskaraz eginda, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da”, UEMA-tik nabarmentzen dutenez.

Eta ondorioz baita, euskararen normalizazioa sustatzen da. Halere, aipatu mankomunitatetik ohartarazten dutenez, “urratsa sendoa izan dadin,



Eskualde askotan ari dira errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina egiten, baita Buruntzaldean ere.

## UEMA

**“Errenta aitorpena euskaraz eginda, administrazioaren euskalduntzea ere bultzatzen da”**

ordea, herritarren babesa eta parte-hartzea beharrezkoa da,

eta hautu horretan eragin nahi du aurrean ere kanpainak, euskarak dagokion lekua izan dezan administrazio publikoan ere”.

Udalerri euskaldunen datuetan islatu nahi da, “udalerri euskaldunetan bizi garela” eta aipatu moduan, administrazioaren euskalduntze bidean eragiten jarraitu nahi

da.

Oraindik gehiengo zabal batek, errenta aitortzeko hizkuntza gisa gaztelania hautatzen du, UEMA-tik helarazi dizkiguten ondoko datuek argi adierazten dutenez.

## Opariak irabazteko aukera

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udaletako euskara batzordeek ere errenta aitorpena euskaraz egitera animatzen dute. “Apirilaren 6tik aurrera autolikidazioa onartzerakoan, sakatu euskararen aukera”, deitzen dituzte herritarrak. Errenta Aitorpena euskaraz egiteak saria dakar Buruntzaldera. Gai honi lotuta, Buruntzaldeko Udalek argitaratuko duten albistea elkarbanatzen baduzue, opariak eskuratzeko aukera izango da.

## Informazio gehiago:

euskara.buruntzaldea.eus

# Autolikidazio proposamenak ikusi eta onartzeko garaia

Errenta aitortzeko garaia hemen da. Jada, zerga informazioa eskuratu edota autolikidazio proposamenak ikusteko aukera dago. Adi egutegi honi:

■ Zerga informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko ataritik eskuratu edo postaz bidaltzea eskatzeko aukera dago jada.

■ Apirilak 10-24: autolikidazio proposamenak bidaliko dituzte.

■ Apirilaren 6tik aurrera: autolikidazio proposamenak ikusteko aukera egongo da.

■ Apirilak 16-ekainak 30: autolikidazio proposamenak onartzeko.

■ Apirilak 20-ekainak 9: errenta aitorpen mekaniza-



Autolikidazio proposamenak bidaltzen hasi dira egunotan. Argazkia: Kronika.

turako hitzordua eskatzeko aukera. Kontuan izan autolikidazio proposamena onartu nahi ez dutenek apirilaren 26ra arte itxaron beharko du-

tela.

**Argibide gehiagorako:**  
902 100 040/  
gipuzkoa.eus/ogasuna

## Iazko datuak

### USURBIL

Euskaraz/Gaztelaniaz/Guztira		
89	2.343	3.236

### BURUNTZALDEA

Euskaraz/Gaztelaniaz/Guztira		
------------------------------	--	--

#### Andoain

1.083	6.319	7.402
-------	-------	-------

#### Astigarraga

507	2.791	3.298
-----	-------	-------

#### Hernani

1.964	8.221	10.185
-------	-------	--------

#### Lasarte

809	8.462	9.271
-----	-------	-------

#### Urnieta

465	2.639	3.104
-----	-------	-------

#### Usurbil

893	2.343	3.236
-----	-------	-------

### GIPUZKOA

Euskaraz/Gaztelaniaz/Guztira		
58.287	316.551	374.838

Iturria: UEMA.

# Datorren astean, VI. Dantza Eguna

Hurbiltzen doa jada erro-tua dagoen dantzarien egun handia. Apirilaren 21erako iragarri du Orbeldi D.T.-k, Usurbilgo 6. Dantza Eguna. Iazko edizioaren ildotik, usurbildarrekin batera, Euskal Herriko beste zenbait txokoe-tatik etorriko diren dantzari taldeekin kalejira eta emanaldia eskainiko dute goiz partean.

Haurren txanda izango da arratsaldean, eta segidan, Ttipika taldekoekin erromeria. Gauean, azken hilabeteotan gogotik landu duten ikuskizun berriaren estreinaldi mundiala; "Euskal Genesis" izenekoa aurten.

## Bazkarirako txartelak salgai

Kontuan izan, Dantza Egunari begirako ondoko oharra; apirilaren 21ean, eguerdi partean dantzariak egin ohi duten bazkaritarako txartelak aurrez eskuratu ahalko dira, Orbeldi Dantza Taldeak Oiardo Kiroldegian sarreran duen egoitzan.

## Apirilak 21 larunbata

- 10:30 Dantza taldeei ongi etorria.
- 11:00 Argazki ofiziala.
- 11:30 Dantza taldeen kalejira herrian zehar.



Apirilaren 21ean, eguerdiko 11:00etan, argazki ofiziala aterako dute.

### APIRILAREN 21EAN

**"Gauean, azken hilabeteotan gogotik landu duten ikuskizun berriaren lekuko izango dira ikusleak: 'Euskal Genesis' izenekoa"**

- Orbeldi Dantza Taldea (Usurbil).
- Akelarre Dantza Taldea (Hendaia).
- Aurtzaka Dantza Taldea (Beasain).

- Ortzadar Dantza Taldea (Iruñea).
- Bizkargi Dantza Taldea (Larrabetzu).
- 13:00 Emanaldia frontoian.
- 14:30 Dantzarien bazkaria. (Txartelak 16:00etan Orbeldiren egoitzan).
- 17:00 Orbeldiko haurren emanaldia frontoian.
- Jarraian, TTIPIKA dantza gidatuak.
- 22:30 "Euskal Genesis" ikuskizuna, Orbeldi Dantza Taldearen eskutik.
- Antolatzailea: Orbeldi D.T. eta Usurbilgo Udala.

## Ingeles udalekuak ikastolan

Apirilaren 13ra arteko epea dute interesdunek, Udarregi Ikastolak ekainaren 25etik uztailaren 20ra (asteleheneetik ostiralera, 09:00-13:00 artean) antolatu dituen "Enjoy English" ingeles udalekuetan izen emateko.

Jatorrizko ingeles-hiztunak diren hezitzaileek gidatuko

dituzte udalekuok. Deialdia, 2006-2012 urte artean jaiotako haur eta gaztetxoei zuzendua dago. 2, 3 edo 4 aste izango dira aukeran.

Prezioak ere, iraupenaren arabera ezberdinak izango dira (2 aste 200 euro, 3 aste 285 euro, 4 aste 335 euro) eta ordainketa bi

zatan egin ahalko da.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, hezitzailea etxean hartzen duenak udalekuok doan izango ditu.

### Informazio gehiago:

udarregi.eus  
943 36 12 16.

## KzGunean goizez egongo da zabalik apirilean

Apirilean goizez izango da zabalik KzGunea, 09:00-13:00 artean. Honatx datozen ikastaroak:

- Apirilak 13-23, 09:00-11:00: "Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi".
- Apirilak 16-27, 11:00-13:00: "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".
- Apirilak 24-25, 09:00-11:00: "Eusko Jaurlaritza zure mugikorrean".
- Apirilak 26-27, 09:00-11:00: "Bapateko mezularitza zure Smartphone bidez".

### Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37  
943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net

## 'Nomada' liburua hartuko dute hizpide apirilaren 25eko

**Irakurketa Topaketan**  
Sutegi udal liburutegiak antolaturiko irakurketa topaketaren hamaikagarren edizioa, apirilaren 25erako antolatu dute, 19:00etan liburutegian bertan. Garaiz jakin dezazuen, "Nomada" eleberria aztertuko dute, egilea, Aitziber Etxeberria bertan dela. Pako Aristik bideratuko du solasaldia.



Aitziber Etxeberriaren Nomada (Erein) eleberria aztertuko dute Pako Aristiren gidaritzapean.

# Gure Esku Dagok antolatu duen giza-katerako “spot” grabazioa

**E**uskal Herrian egin den inoizko mobilizazio handiena iragarria du Gure Esku Dago mugimendua ekainaren 10erako; Donostia, Bilbo eta Gasteiz, eta bidean hamaika herri lotu eta 201,9 kilometro luze izango dituen giza-katea. Gogoan izan, Usurbildik eta Aginagatik ere igaroko dela, “Eman eskua etorkizunari” aldarripean burutuko den erabakitze eskubi-dearen aldeko ekimena.

Giza-kate hau antolatzeko lanketa betean da Gure Esku Dago mugimendua. Hitzordua iragartzeko “spot” bat grabatzera doaz asteotan, eta iragarri dutenez, lehen irudiak, Usurbilgo plazan grabatuko dituzte igande honetan bertan, apirilaren 15ean, goizeko 9:00etatik aurrera. Grabaketarako 500 pertsonatik gora behar dituztela adierazi dute Gure Esku Dago mugimendutik. Deialdia irekia izango da, edonork par-



Gure Esku Dago mugimendua “spot” bat grabatzera doa eta lehen irudiak Usurbilgo plazan grabatuko dituzte.

## GURE ESKU DAGO USURBIL

**“Grabaketarako  
500 pertsonatik gora  
beharko dira.  
Igandean, goizeko  
9:00etan batuko gara  
Mikel Laboa plazan”**

te hartu ahalko du. “Usurbilgo plazan hartuko dira lehen iru-

diak! 500 lagunetik gora behar dira. Usurbildarrok ere jarri beharko dugu gure aletxo, ezta? Animatu eta zatoz!”, luzatu dute gonbita Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak.

Usurbilen soilik ez, Donostiako Bidebietan ere egingo dute grabazioa egun berean 14:00etan (Serapio Mujika kalea 25ean) eta apirilaren 21ean eta 22an Gasteizen.

## Bizikletak konpontzeko tailerra

**E**makumeei zuzendutako ahalduzko ikastaro berria antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak apirilaren 14rako; bizikletak konpontzeko tailerra.

“Ikastaro honen helburuak hauek dira: bizikletan ibiltzen diren emakumeek mekanika oinarrizko ezagutzak izatea eta

beraien autonomia lantzea”. Gurpileko atalak ezagutzea eta zulaketak konpontzea; balaztak aldatzea eta egokitzea; kate ateratzeak eta apurketak konpontzea eta oinarrizko bizikleta mantenimendua ezagutzeko aukera izango da larunbateko saio praktikoan. “Bizikleta eta etxean dituzuen herramintak eramatea gomen-

datzen da”, ohartarazi du antolakuntzak.

Usurbildarrek lehenetsuna izango duten tailer honetarako izena, aurrez eman beharko da. Bideotatik:

### Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila

943 377 110  
parekidetasuna@usurbil.eus

## Gazte Euskaltzaleen Topaketa

NOAUA! K.E. kide duen Euskaltzaleen Topaguneak, Nafarroako eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluekin batera Gazte Euskaltzaleen topaketa antolatu du maiatzaren 5ean Donostian, 09:00-17:30 artean. “Gure helburua sinplea bezain garrantzitsua da: Euskal Herriko gazteak elkartu nahi ditugu, euskararen erabilera hausturatu eta ekintza zehatzak sustatzeko. Horretarako, elkarrizketagune autoeratuaz baliatuko gara”, iragarri dute. Topaketarako izena aurrez eman daiteke helbide honetan: <https://labur.eus/GOovg>

### Argibide gehiago bideotatik jaso ditzakezue:

688 648 352  
rita@topagunea.eus

## ‘Furgobaratza’ Agerreazpiko udal baratzetan izango da apirilaren 23an

Gipuzkoako Baratze Parke sarean aholkularitza zerbitzua eskaini eta baratze parke batetik bestera ibili ohi den ‘Furgobaratza’, Agerreazpiko udal baratzetan parkera itzuliko da apirilaren 23an. “Tomatearen tailerra” egingo da 18:00-19:30 artean.

### Informazio gehiago:

ekogunea.eus  
baratzeparkea.ekogunea.eus

Okindegia-Gozotegia  
LABE.GOXO

Artzabal  
bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

ARTZABAL  
BASERRIA · JATETXEA  
EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK  
943 36 91 39  
[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



Saltoki handiak, atzeraldi ekonomikoa, internet...

ez da berdin

**babestu zure herrikoa**

herriko denda txikietan erosteak... handi egiten zaitu!

**eman bizia, bizirik iraungo badu**

hurbilag

Udaltzako Mankon **«Ez Dabiz»** Ekintza



Udaltzako Udala



ERAKUNDE INDIARRAK  
GOBERNU BASKO  
MINISTERIO, ENERGIAREN  
BERRIKONTSU ETZAKO ZUZARDA

# Ainhoa Intxaurrendietaren eta Iñaki Errazkinen aurkako epaiketa salatzen kazerolada

2013ko azaroan Zubietako erraustegia gertatzeagatik ostegun honetan, apirilaren 12an Madril, Espainiako Kontu Auzitegiaren epaituko dituzte, garai hartako Gipuzkoako Hondakinen Kontsordzioko (GHK) lehendakari Ainhoa Intxaurrendia eta ingurumeneko foru diputatu Iñaki Errazkin. Duela ia bost urte erraustegiko lanen kontratu eteteak eragindako kalte ekonomikoa Intxaurrendietak eta Errazkinek bere gain hartzea nahi du, egun EAJ eta PSE alderdiek gehien goa duten GHK-k. 40 milioi eurotik gorako zorra bi herri-tarrok beren poltsikotik ordaintzea galdegiten diete.

Biei babeseta eta elkartasuna adierazteko hainbat ekimen antolatzen ari dira. Epaiketa egunerako, ostegun honetarako (apirilak 12) kazeroladak eta karteladak deitu dira Gipuzkoako herrietan. Baita Usurbilen ere, ostegun arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. “Ekarri tresna zaratsua!”,



Larunbatean manifestazioa egin zuten Azpeitian. Bertan izan zen Xabier Arregi alkatea. Ostegun honetan kazeroladak egingo dira. Usurbilen, 20:00etan batuko dira Mikel Laboa plazan.

## APIRILAREN 12AN

**“Epaiketa egunerako  
kazeroladak  
eta karteladak  
deitu dira  
Gipuzkoako herrietan”**

galdegin dute deitzaileek.

### Elkartasun ekimenak

Ondoko argazkian ikus dai-

tekeen moduan bestalde, epaituetako baten sorterrian, Azpeitian, manifestazio jendetsua egin zuten larunbatean, “Iñaki eta Ainhoaekin elkartasuna” aldarripean. Igande honetarako, Ainhoa Intxaurrendia eta Iñaki Errazkinen aldeko elkartasun ekitaldia antolatu du EHBilduk eguerdiko 12:30ean, larunbatean manifestazio jendetsua egin zuten herri berean, Azpeitian.

Azkenik, gogoan izan, erraustegiaren atzean dagoena plazaratu eta elkartasun bira ere baden “Angula ustelak” hitzaldi zikloa martxan du Gipuzkoa Zutik mugimenduak. Gipuzkoa luze zabalean hitzaldiak antolatu dituzte, tokian tokiko eragileekin elkarlanean. Martxoaren 7an Usurbilen izan ziren. Aldaketarik ez bada, maiatzaren 17rako iragarria dago Zubietako hitzaldia.

## Langileak ere, alternatiba eske

Lan munduko eragileek eta Errausketaren Aurkako Mugimenduak martxoaren 20an Donostian antolatu zuten jardunaldi eguna, San Telmo Museotik abiatu eta Foru Al-dundiko egoitzara zuzendu zen giza-kate batekin amaitu zuten. Bidean zehar, etenik gabekoak izan ziren errausketaren aurkako eta osasunaren aldeko oihu eta txistu hotsak. Amaieran Diputazio atarian egin zuten elkarretartzean, erraustegia geratzeko berme bakarra gizartea mugiaraztea dela nabarmendu zuten.



Martxoaren 20ko jardunaldia manifestazio batekin amaitu zen.



**FINKA ADMINISTRATZAILEA**

**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**

**INMOBILIARIA**

**ASEGURUAK**

**943 573 693**

*Eusko Gudari 35, ORIO*

**ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN**

Ontzien alokairua urte osoan zehar

Usurbilgo Txokoalde auzotik Orioraino, 2,5 orduko jaitsiera kaiakean.

Beguraleekin antofaturiko jarduerak

**657 794 677**

[www.begi-bistan.com](http://www.begi-bistan.com)  
[info@begi-bistan.com](mailto:info@begi-bistan.com)

## BAZKIDEEN TXOKOA



**apirilaren 20an Zozketatuko dugu:**

**AGINAGA  
SAGARDOTEGIAN**

**2 LAGUNENTZAKO  
afari edo bazkaria**

**NOAUAREKIN  
TXOTXI!**

**noaua! euskararen aterpe**

# Lourdes Mancisidor, pediatra: “Une honetan pediatra gutxi daude”

**N**eguan hartu zuen erre-tiroa, azken 14 urteotan Usurbilgo anbulatorioan pediatra gisa lanean aritu ostean. Pozik eta gustura borobildu du bere ibilbide profesionala herriko osasun etxean, baina era berean, bere ogibidearen etorkizunarekiko kezka agertu du Lourdes Mancisidorrek NOAUA!ri eskaini dion elkarrizketa honetan.

**NOAUA! 14 urte aritu zara Usurbilen pediatra gisa. Ume eta guraso piloarekin harremanduko zinen?**

**Lourdes Mancisidor:** Azkenean familia osoa ezagutzen duzu. Beraiekin egoteko minutu batzuk baino ez ditugu izaten, baina haien bisitak errepikatzen direnez, ezagutzen dituzu azkenean. Harremana ona izan da.

**Zeintzuk dira pediatra baten eguneroko eginkizunak anbulatorio batean?**

Batez ere kontsulta pasatzen dugu. Baina horrez gain, barruko lana izaten dugu eta formakuntza egin behar dugu. Kasu zailak baditugu, edo diagnostikoa behar dutenak aztertzeke, zer erantzun eman jakiteko, gure lanak hortik



Pozik eta gustura borobildu du bere ibilbide profesionala Usurbilgo osasun etxean.

## **LOURDES MANCISIDOR**

**“Azkenean familia osoa ezagutzen duzu. Beraiekin egoteko minutu batzuk baino ez ditugu izaten, baina haien bisitak errepikatzen direnez, ezagutzen dituzu azkenean”**

kanpo ere jarraitzen du. Tristea da, baina denborarik ez dugu izaten nahi dugun bezala lan egiteko.

**14 urteotan izan duzu une**

**zailik? Gastroenteritis brotea izan zenean agian? Lan karga handituko da halakoetan.**

Kasu piloa izan genuen baina moldatzen gara. Batez ere inportantea da gure zentroan mediku familien kolaborazioa eta laguntza. Haien laguntza oso ona dugu. Pediatriako gure erizaina gure *alma mater*a izan da koordinazio lanetan. Arazo hauei aurre egiteko lan talde oso ona dago Usurbilgo anbulatorioan.

**Psikologo lanak egitea ere egokituko zitzaizun?**

Guk esaten dugu osasun zain-

tza integrala eskaintzen dela. Askotan arazo fisikoak arazo psikologikoetatik transmititzen dira. Kasuotan bai behar duzu denbora txikiekin eta gurasoekin, detektibea izan behar zara familiarekin. Haurrak arazo fisikoren bat duela esaten dizue batzutan lehenik, arazoren bat dagoela baztertzeke. Gero atzean, arazo horrek oinarri bat duela ikusten baduzu, arazoak agian beste batzuk izaten dira. Halakoetan bai, familiarekin kontatzen dizkizute gauzak, baina une horretan. Eta laguntza, aholkua behar izaten dute ze bide hartu behar duten jakiteko.

## “Berotasun handiz agurtu ninduten azken lan egunean”

**NOAUA! Otsailean amaitu zenuen zure ibilbide profesionala. Azken eguna nola oroitzen duzu?**

**Lourdes Mancisidor:** Hamaika lan egin behar nituen dena ordenatuta uzteko, ezer zintzilik ez uzteko. Langile berria prestatzeko etorri zen. Inten-tsitate handiko eguna baina hunkigarria izan zen. Azken bi asteetan jendeak

bazekien banindoala. Berotasun handiz agurtu ninduten. Udarregi Ikastolako zuzendaria ere etorri zen. Harreman oso ona izan dut haiekin. Hiruhilabetero bilerak izaten genituen, hainbat kasuez hitz egiteko.

**Herriko beste zerbitzuekin ere harremana izan baituzu.**

Usurbilen lan egitea oso erraza

da. Alde horretatik oso erraza da komunikazioa izatea. Ikastola bat dugu, gizarte zerbitzuak ere oso hurbil ditugu. Besteekin komunikazioa izateko primerakoa da herria.

**Elkarlan hau ere ezinbestekoa izango da.**

Bai, garrantzitsua da. Langile berriari esan nion, jarraitzeko horretan.

**Urteotako balantzea egite-rakoan, bizitakoak gozotik gehiago izango du?**

Jendearekin harreman oso ona izan dut orohar. Batzuekin konfiantza oso ona izan dut, jendearekin primeran. Ezin naiz kexatu. Askotan pazientzia izan behar izaten dute beraiek, presaka ibiltzen garelako. Baina herritarrak oso ulerkorak izan dira.



# “Zalantza dugu postu hauetarako behar adina pediatria egongo ote den”

**NOAUA!** Hitz batzuk egin nahi dituzula aipatzen zenigun elkarrizketa hasieran.

**Lourdes Mancisidor:** Denei agurtzeko. Nire lankideak alma materrak izan dira. Lan talde oso ona da Usurbilgoa. Lan arazorik izanez gero hor duzu beti jendea laguntzeko prest. Bestalde, lan askoko edo alaitasun gutxiko egunak izaten ditugunean ere, oso ulerkorrak izan dira herritarrak. Eskerrik asko guztiagatik, primeran lan egin dut Usurbilen. Halere, gustatuko litzaidake gure lanean jendea eskaintzeko denbora pixkat bat gehiago izatea.

## **N. Baliabide gehiago?**

Badakigu zer dagoen. Une honetan pediatria gutxi daude. Jendeak nabariko zuen. Pediatrak oporrak izan edo lantokira joan ezinean egonez gero, ordezkoa ez zen pediatria. Ez da Gipuzkoako arazoa soilik, orokorra da. Pediatria kopurua Madrilak finkatzen du.

## **N. Biztanle kopuruaren arabera finkatuko da pediatriaren zenbatekoa.**

Bai. Nik 1.000 bat ume nituen, baina normalean ohiko kopurua da hori. Pediatria bakoitzak gutxienez 800 ume izan ohi ditu. Kopurua hala dago finkatua. Arazoa halere



“Eskerrik asko guztiagatik, primeran lan egin dut Usurbilen”, aitorten hori egin nahi izan du NOAUA!ren bitartez.

## **LOURDES MANCISIDOR**

**“Lan talde oso ona da Usurbilgoa. Lan arazorik izanez gero hor duzu beti jendea laguntzeko prest. Bestalde, lan askoko edo alaitasun gutxiko egunak izaten ditugunean ere, oso ulerkorrak izan dira herritarrak”**

ez da hori bakarrik. Aurreikuspen falta handia izaten ari dira. Hurrengo urteotan jubilatuko garen pediatrekin, Gipuzkoan

ez da pediatria askorik izango. Zalantza dugu postu hauetarako behar adina pediatria egongo ote den.

## **N. Pediatrak falta dira beraz?**

Bai, falta dira. Adibidez Gipuzkoan, sei pediatria sartzen dira urtero normalean. Urte batzuetan, ospitaletik formakuntza egina badute, bi ospitalean geratzen dira, 4 Lehen Mailako Atentzio Unitateetara joaten dira. Une honetan proportzio hori ez da nahikoa.

## **N. Honek zerbitzuan eragingo du.**

Batez ere arazoak sortzen badira. Beste anbulatorio batzuetan, Donostiakoetan esaterako 4-5 pediatria dituzte, eta bat falta bada, besteekin ordezkatzen dute. Baina Usurbilen, Astigarragan edo Lezon adibidez pediatria bat dago. Pediatria falta bada, hutsunea nabariagoa izaten da. Usurbilen adibidez ordezkapena askotan Lasarterekin egiten dugu. Lasarten hiru pediatria daude. Batzuetan desplazamendua izan dute Usurbilgo anbulatoriora, hiru edo lau orduz zerbitzua mantentzeko.

# “Ez dugu nahikoa baliabide”

**NOAUA!** Esan liteke Usurbilen beharrezkoa litzatekeela bigarren pediatria bat?

**Lourdes Mancisidor:** Zaila da hori jakitea. Azkenean bi pediatrekin bakoitzak 500 ume izango litzateke. Hori ederra izango zen, baina ez da posi-

ble. Orohar ez dugu nahikoa baliabide, 500 ume bakarrik gure gain hartzeko. Borroka Lasarten izan genuen. Berrez, Lasarte-Usurbil unitate bakarra da. Lasartek bi pediatria zituen, eta une batzuetan bakoitzak 1.300 umeren

ardura zuen. Hala ezin zela lan egin adierazi eta hirugarren pediatria izatea lortu genuen. Orain Lasarten, pediatria bakoitza ez da heltzen 1.000 bat ume izatera. Lasartekoa lortu genuen, Usurbilgoa utopia litzatekeela uste dut.

**Murritzketaren bidetik doazela ikusita gehiago.**

Elkarte bat dugu Lehen Mailako Atentzio Unitateetako pediatriaren euskal elkarte. Borroka egiten dugu barruan, politikan eragiteko. Gutxienekoak betetzeko behintzat.

22€

SARRERAK SALGAI  
HERNANI  
KRONIKA KIXKAL ARALAR  
GOIZUETA  
AMAIA KAFETEGIA

ERENOTZU  
IRRINTZI  
ASTIGARRAGA  
IKATZA

# BERTSO GUTIZIAK

ONDREN GUTIZIA BEREZIZ  
OSATUTAKO LUNTX-AFARIA  
**ONGI ETORRI!**

23:30 etan autobusa **HERNANIRA** bueltatzeko  
IZENA EMAN Oobera-Kronikan 943 33 08 99

APIRILAK 20  
19:00ETAN

Basque  
Culinary  
Centeren

MAIALEN  
**LUJANBIO**  
AITOR  
**SARRIEGI**

UNAI  
**AGIRRE**  
AITOR  
**MENDILUZE**

Gai-jartzailea:  
**AMAIA AGIRRE**

Laguntzailea:  
**INSALUS**

Antolatzailea:  
URUMEAKO  
**Kronika**

KAZETARIEN LAN POLTSA  
NOAUA!

KAZETARIEN LAN POLTSA OSATU NAHI DUGU  
NOAUA! KULTUR ELKARTEAN

PROFILA:

- Kazetaritzan lizentziatua (baita azken ikasturtean matrikulatutakoak ere).
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.
- EGA edo baliokidea den agiria izatea baloratuko da.
- Gida-baimena izatea baloratuko da.
- Komunikatzaile ona eta teknologia berrietan trebatua izatea.

Curriculum-a noauara ekarri edo bidali:  
NOAUA! Kultur Elkartea | Bordaberri 3, 20170 Usurbil | E-postaz: [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

# “Erne! Zerbait aldatzera doa”

Egunotan frontoi ingurura gerturatu bazarate, erreparatu al diozue Sutegi kultur etxeko hormari? Hala bada, egunotan ondoko kartelak jarrita daudela jabetuko zineten. Datorrenaz iragartzen gaituzte. “Erne! Zerbait aldatzera doa”. Herria bizirik izateko nahia agertzen duen kartel bat ere bada tartean.

Esnatu eta lokaletik ateratzeko deia egiten da beste bi karteletan. Eta eraldaketan eragiteko gonbita luzatzen da. “Beldur asko, iritzi gabe, prekario. Alda dezagun elkarrekin”. Gogorazten dutenez, “mugitzen denak bakarrik somatzen ditu kateak”. Karteloen esanahia laster ezagutuko dugu. Ostiral honetarako, apirilaren 13rako, gaueko 22:30ean Sutegin deitu duten aurkezpen ekitaldian.



Kartel hauen esanahia laster ezagutuko dugu. Ostiral honetarako, apirilaren 13rako, gaueko 22:30ean Sutegin deitu duten aurkezpen ekitaldian.

## Usurbilgo Gazteak martxan!

### Orainari heldu, eta etorkizuna guretzat!

Egunerokotasunean itsuturik korronteak garamatzen norabidea jarraitzera jotzen dugu askotan, gure inguruan duguna eta gu geu ere nor garen jakin gabe. Honen aurrean, begiak zabaldu eta gazteok herrian dugun tokia indartzeko asmotan gatoz. Herrian eta bizitzan ditugun arazo eta zapalkuntzez eztabaidatzen gabilta ekintzetera jauzia emateko prest.

Etorkizuna, zeinen hitz abstraktua, bizi dugun garai honetan. Azken urteotan, murrizketak gora eta murrizketak behera, gure aiton-amonek lortutako eskubide sozial guztiak banan bana nola kentzen dizkiguten ikusten ari gara: lan-hitzarmenen desagertzea;

bitzita garestitzen eta soldatak gero eta baxuagoak; lan-kontratu prekarioak; alokairu eta etxebizitza ordainezinak; artea eta kulturari murrizketak nonahi; heteropatriarkatuan oinarritutako hezkuntza, eta abar luze bat.

Ezinegona eragiten digu gazteoi, eta beharra sentitu dugu horri buruz hausnartzeko. Geure etorkizunari helduko badiogu, ezinbestekoa baita orainari erreparatzea. Ikasle zein langile bezala ahalduntzeko, bizi ereduaz hausnartzea, aisialdi motaz aritzea, etab. Horregatik, apiriletik azarora bitarte, hamai-ka ekimen antolatu, eta hausnarketa, aisialdia eta borroka uztarri berean kokatu ditugu.

Giro alaia eta parte-hartzailea bilatzen dugu. Gai bakoitzarekin, elkargune bana

eratuko dugu. Hala, hilabete bakoitzean gai bati heldu, eta gaiari erpin, ertz eta adar guztietatik aztertu eta hausnartu nahi dugu.

Plangintza hau guztia azaltzeko apirilaren 13an (ostirala) aurkezpena egingo dugu 22:30ean Sutegin.

### Honaxe egitaraua:

- Apirila: Ikasle eta langile, xoxikgabe betire!
- Maiatza: Euskara, artea eta Aisialdia herriaren bizia!
- Ekaina: Pare eta kide, Ta PuntO!
- Uztaila: Ume eta gazteak herriko jabeak! Urban day!
- Abuztua: Akanpaden hila-betea, gurea ilargi betea!
- Iraila: Herria Xutan!!! Kartzela eta motxiladun umeak.
- Urria: Hilabete bakoitzaren

hausnarketen inguruan mahai inguruak eta hausnarketa orokorra.

### ■ Azaroa: Gazte eguna.

Hilabete bakoitzak bere egutegi propioa izango du, eta osatu ahala, joango gara kale-ratzen. Bide batez, herriko eragile eta talde guztiei eskua luzatu nahi diegu, hilabete bakoitzeko dinamikan parte hartzera, eta guztion artean egutegia osatzera. Elkarlana baitugu bide, eta arnasbide.

Azarora bitarte, ondo pasatzen, ikasten eta borrokan ondo pasa dezagun!

Gazteok argi dugu. Gure eskubide guztien jabe, Usurbilgo bizi eta euskaldun batean bizi nahi dugu. Eta orainari heltzera goaz, etorkizuna gurea izan dadin!

**Usurbilgo gazteak**

# Buruntzazpiko kideak nagusitu ziren aurreko larunbateko txirrindulari lasterketetan

Xanti Eizagirrenen omeneko alebin eta infantil mailako txirrindulari gazteen lasterketa ospatu zuten apirilaren 7an Zumartegi industriagunean. Abiada bizian ospatu zen hitzorduko sailkapena duzue segidan eta lasterketa irudiak. Argazki gehiago, [noaua.eus/argazkitegia](http://noaua.eus/argazkitegia) atarian. Lehen postuetan, Buruntzazpi txirrindulari taldeko kideak nagusitu ziren.

Etxekoak, Buruntzazpi taldekoak nagusitu dira sailkapeneko lehen postuetan:

## Alebinak

### Neskak

- 1-Intza Navarro Petrarena (Elizatxo, Hernani).
- 2-Maria Navarro Yamaguchi (Donostiako Santa Teresa Ikastetxea, DB).
- 3-Amets Goikoetxea Suberbiola (Astigarragako Herri Eskola).

### Mutilak

- 1-Xabat Zuriarrain Zuloaga (Udarregi Ikastola, Buruntzaz-



Aurreko larunbatean lasterketa ezberdinak egin zituzten Zumartegi industriagunean.

pi).

- 2-Pablo Ausin Aguiar (La Anunciata, Allerru).
  - 3-Asier Aizpurua Etxabe (Maria eta Jose, Zumaia).
- Lehen usurbildarra: Markel Tamayo Orbegozo (Orioko Herri Eskola, Buruntzazpi).

## Infantilak

### Neskak

- 1-Garazi Bergara Agirre (Viveros San Anton)
- 2-Maddi Etxabe Elezgaray (Viveros San Anton)
- 3-Maialen Arruti Garcia (Optica Bidasoa)

## Mutilak

- 1-Daniel Fursenko Andre (Buruntzazpi)
  - 2-Lander Sanz (Allerru)
  - 3-Xabier Blanco Bernardo (Optica Bidasoa)
- Lehen usurbildarra: Eneko Aranguren Carbayeda (Buruntzazpi)



# NOAUA!ko bazkide izateak saria dakar eta horri esker sagardotegira doan joango dira argazkikoak



Haimar Zubeldiaren amak jaso zuen semeari zegokion saria.



Margarita Bengoetxea Otegi Urdaira sagardotegira joango da.

**N**OAUA! Kultur Elkarteko bazkide izatearen abantailetakoa bat, egiten ditugun zozketetan irabazi ditzakezen sariak dituzue.

Txotx boladaren amaiera

honi begira, bi sari eder banatu ditugu asteotan. Batetik, Saizar sagardotegian dastatzeko bi lagunentzako otordua; Haimar Zubeldia Agirreri egokitu zitzaion. Amak jaso zuen

saria bere izenean. Urdaira sagardotegian 2 lagunentzako zozketatu genuen otordua berriz, Margarita Bengoetxea Otegiari tokatu zitzaion. Zorionak!

NOAUA!ko kide ez bazara, eta halako zozketetan parte hartu nahi baduzu, etorri NOAUA! K.E.-ren egoitzara eta segituan tramitatuko dizugu bazkidetza.

## Dardo lehiaketa antolatu dute Usurbilen

Udalerrri mailako Dardo Liga antolatu dute, "Handicap-dun txapelketa". Bi tabernetan, Aitzagan eta Xarman ospatuko da.

Lehen hiru sailkatuentzat garaikurrak izango dira eta "liga guztiz amaitzen duten jokariak, sari banaketa eguneko bazkarira gonbidatuak izango dira".

Bazkaria, ekainaren 17rako iragarri dute Añorgan. Izen ematea zabalik zegoen apirilaren 9ra arte.

Jokalari bakoitzak 5 euro ordaindu behar zituen. Gutxienez zortziko multzoak osatu beharko dira. Informazio gehiago: Xarma eta Aitzaga tabernetan edo 630 958 739 telefono zenbakian.

## Maiatzean hasiko da gizonezkoen paleta goma txapelketa

**B**akoitzak bere izena eman behar du eta aurrelari edo atzelari jokatzeko asmoa duen zehaztu. Gero bikoteak txandakatu zingongo da lehiaketa.

Antolatzaileek aditzera eman dutenez, "lehiaketa sistema parte hartzaile kopuruaren arabera zehaztuko da. Partida guztiak Aginagan jokatuko dira. Finalak Usurbilen".

### Baldintzak

- Norentzat: 18 urtetik gorako usurbildarrentzat.
- Noiz: Maiatzean hasi eta Santixabeletan amaitzeko.
- Izen-ematea: Apirilaren 20a, ostirala, azken eguna.



Maiatzean hasi eta Santixabeletan amaituko da txapelketa.

- Izena emateko 626110923 telefono zenbakira deitu edo helbide honetara idatzi: huizip@gmail.com
- Antolatzailea: Usurbilgo Pilota Elkartea.

## Memoria historikoan sakontzeko asmoa

1936ko gerrari buruzko memoria historikoari buruz lehendik egina dagoen lanetan sakontzeko, aztarnak, lekukotzak bildu eta hau guztia jasoa geratu dadin, gai hau jorratu asmo dago herri mailan. Gaia jorratu eta lantzen segitzeko asmoa dute, aurrez eginiko deialdian iragarri eta apirilaren 5ean Potxoenean eginiko aurkezpenean adierazi zuten. Aurrerago emango dute xehetasun gehiagoren berri.



Apirilaren 5ean aurkeztu zuten ekimena Potxoenean.

# Hilobi lote berri bat aukeran

Lehiaketa publiko bidez hilobi lote berri baten lgaineko eskubideak esleitzera doa Usurbilgo Udala. Prozedura hau abiatzea erabaki zuen udalbatzak otsailaren 27ko osoko bilkuran.

Erabaki hura, martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunetik zenbatzen hasita, deialdi honetan parte hartzeko 30 eguneko epea dute interesdunek. 50 urterako esleituko dira: hilobi bat Sahatsa kalea 5 eskuinean eta beste bat 8 eskuinean; 6 hilobiko panteoi oso bana Makala kalea 2an eta 4ean. “Kudeaketa pribatuko hilobi bakoitzaren erabilpen pribatiboen kanona edo tasa 2.590,00 eurokoa izango da (seiko panteoi osoa 15.540,00 euro)”. Horrekin batera, eskatzen den hilobi bakoitzeko 60 euroko bermea eskatuko da.

Dokumentazioa Usurbilgo Udaleko Zerbitzu eta Mantenu Sailean eskura daiteke. Agiriak, udal idazkaritzan aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera, 09:00-13:30 artean. Argibide gehiago udaletxean



Erabakia martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

## ESKAINITZA BERRI BAT

**“50 urterako esleituko dira. Deialdian parte hartu nahi duten interesatuek 30 eguneko epea izango dute”**

bertan edo 943 371 951 telefonoz zerbaki jaso ditzakezue.

## Hilerrri berriari lotutako ordenantza

Behin betiko onartu zuen udalbatzak martxoaren 27ko osoko ohiko bilkuran, epe barruan

inork alegaziorik aurkeztu ez osten. Zenbait egokitzapen txertatu dituzte 2010ean onarturiko udal ordenantza honetan, besteak beste, Errautsen Parkea eraiki izanagatik. Aurrerantzean esaterako, hileta edo omenaldi zibilak gune gehiagotan eta ordutegi zabalagoan egin ahalko dira. Astelehenetik larunbatera, goizez (11:00-13:00 artean) nahiz arratsaldean (18:00-20:00), hilerri berriko tanatorioan, itxiturerekin Askatasuna plazan, Sute-giko auditorioan eta Errautsen Parkean bertan.

# Arrasatetik Senperera

Ondoko irudian, apirilaren 8an Gipuzkoako Biraren laugarren etapa osatu zuten mendizaleak. Eibar-Udala (Arrasate) arteko bidea egin zuten. Bosgarren etapa, ekainaren 3rako dute iragarria; Kanpazar (Arrasate)-Arlaban (Leintz Gatzaga) artekoa. Aurretik orde, Ereñozu Senpererekin lotuko duen irteera antolatu dute, hain zuzen, Herri Urrats jaialdia ospatuko den astebururako, maiatzaren 12-13rako. Aurrerago eskainiko dituzte izen emateari lotutako xehetasunak. Irudia: Andatza M.K.T.



Apirilaren 8an, Gipuzkoako Biraren etapa berri bat osatu zuten, Eibar eta Udala (Arrasate) artekoa. Maiatzaren 12ko asteburuan, Herri Urrats festa profitatuz, Ereñozu eta Senpere arteko bidea osatuko dute.

## Udako Txokoak Zubietan, 2-12 urteko gazteentzat

Zubietako Guraso Elkaratek udan zehar, 2-12 urte arteko zuzendutako txokoak antolatu ditu Zubietan. Txokoetan parte hartzeko interesa dutenek idatzi dezatela [zubietatxoko@gmail.com](mailto:zubietatxoko@gmail.com) helbidera edo 649 659 786 telefono zenbakira deitu.

## Udajolaseko izen ematea

### laster irekiko da

Badator NOAUA! Kultur Elkaratek eta Usurbilgo Udalak uztailerako antolaturiko udaleku irekietan izen emateko garaia. 4-12 urte arteko (HH3-LH6) haur eta gazte txoei zuzendutako Udajolasen inskripzioak bideratzeko epea laster zabalduko da. Urtero moduan, izen emate orria beteta, ordainketa-ageria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia aurkeztu beharko dira NOAUA!ren egoitzan.

## Datorren asteko aldizkarian xehetasun denak

Izen emate orriak, ohi bezala aurrez banatuko dira ikaste-txeetan. Bestela NOAUA!ren egoitzan ere eskuratu ahalko dituzue. Iaz bezala, 200 haurrentzako lekua egongo da, uztailaren 3tik 27ra luzatuko den Udajolasen. Xehetasun gehiago, hurrengo astekarrian.

## Gipuzkoako Txapelketako pilota partida Aginagako frontoian

Apirilak 13 ostirala, 20:00

Eskuz banaka jubenilak, 1.Maila:

- Pagazpe (Imanol Galarraga)
- Alde Zaharra

# Lagun arteko omenaldia

**M**erezitako ezustekoa jaso zuen martxo amaieran Asier Zubiri Aierbe usurbildarrak.

Denboraldi amaieran Bidasoa taldea eta eskubaloia utziko zituela iragarri zuen duela aste batzuk. Kirol jarduera honetan egin duen ibilbide oparoa gorai-patzeko merezitako agurra eta omenaldi-afari sorpresa prestatu zioten koadrilako kideek, eskubaloia munduko lagunak martxo amaieran Zapiain sagardotegian. Ondoan duzue, sagardotegi atarian bertan atera eta Pako Agudo herritarrak helarazi digun talde argazkia.



Asier Zubiriari omenaldi-afari sorpresa prestatu zioten koadrilako lagunak.

## Eskubaloia Kiroldegian

### Apirilak 14, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak, Gipuzkoa:  
Udarregi 5A-Urnieta 5B  
■ 11:15 Infantil neskek, Gipuzkoa:

## Udarregi B-Aloña Mendi B

■ 12:30 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Bergara  
■ 16:00 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Bidasoa  
■ 19:30 Senior mutilak, Lehen Nazionala: Usurbil K.E.-Egia

## Futbol partidak

### Haranen

#### Apirilak 14 larunbata

■ 09:30 Alebin neskek:  
-Udarregi 6-Langile A  
-Udarregi 5A-Udarregi 5B  
■ 10:30 Infantil neskek:  
Usurbil F.T.-Goierri Gorri F.K.A  
■ 12:00 Kadete neskek:  
Usurbil F.T.-Aloña Mendi K.E.  
■ 15:30 Erregional mutilak:  
Usurbil F.T.-Ilintxa S.D.

#### Apirilak 15 igandea

■ 10:00 Futbol Eskola 2007:  
-Usurbil F.T.  
-Texas Lasartearra C.F.  
■ 17:00 Jubenil mutilak:  
-Usurbil F.T.  
-Mariño C.D.

## Itzulia Aginaga eta Usurbildik igaro zen



Ziztu bizian igaro zen tropela.

Ihesean zihoazen lau txirrindulari (Salas, Lastra, González eta Ghebreigzabhier) igaro ziren lehenik. Dezente atzerago, heldu zen tropela. Minutu erdiko tartean zeharkatu zuen

halere, Itzulia Basque Country lasterketako txirrindulari multzoak Aginaga eta Usurbil. Ziztu bizian aurten ere, apirilaren 2an, Zarautzen hasi eta amaitu zen lehen etaparen baitan.

## Oporretan kirolaz gozatzeko Usurbil FT taldearekin



Aisia eta bizi ohitura osasuntsuen aldeko apustua egin dute oporretan.

Ondoko irudiko taldeak ez du aspertzeko beta handirik izan igaro berri diren oporretan, Usurbil Futbol Taldeak antolatutako txokoei esker. Kirol jarduerara anitzez gozatzeko auke-

ra izan dute, primerako giroan. Aisia eta bizi ohitura osasuntsuen aldeko apustua egin dute oporretan, urte luzez egiten aritu diren moduan. Irudiak: Usurbil F.T.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Inaki**  
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
RPS: 28/17  
USURBIL

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxea salgai Atxegalden. 4 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Dena berritzeko. 659 921 235

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trastelekua eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafetakoa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparreia etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, telatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informez ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegia edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600

euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta, garajeak

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat

alokatzen da Errekabixi 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan etxeko lanak egiteko emakume bat beharko nuke. Lan-egun erdian. 695 783 202

Zerbitzari bat behar dugu asteburutarako Artzabal jatetxean eta udaran ordu gehiago. Tarteak asteburuak jai egiteko aukerarekin. Garrantzitsua euskara jakitea eta esperientzia izatea. artzabaljatekxa@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat be-

har da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel. 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lane-



## Zorionak Maddi!

Apirilaren 6an zure urtebetetzea izan da. Zorionak eta muxuak etxeko partez.



## Zorionak Haizea!

Apirilaren 2an 7 urte bete zenituen. Besarkada handi bat etxeko partez, prexioxa!!



## Zorionak gure bi printzesei,

Ariana eta Irene. Muxu asko asko gurasoen partez...



## Zorionak Irai!!

Apirilaren 13an 10 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta ea festa handi bat egiten dugun. Asko maite zaitugu! Ama eta aitaren partez.



## Zorionak Irai!!

Apirilaren 5ean 4 urte bete zenituen! Muxu asko etxeko partez.



## Zorionak Mikel!

10 urte bete dituzu, ondo pasa! Muxu bat Beñat, Eneko, ama eta aitaren partetik.



## Zorionak txikitina!

Apirilaren 10ean 2 urte. Muxu pila-pila maite zaitugun denon partez!



## Zorionak Izaro!

Apirilaren 23an, 6 urte. Besarkadak senide eta lagunaren partez!

## Heriotzak

## Juan Tomas Telleria Gorostegi

92 urterekin hil zen martxoaren 22an Usurbilen



## M. Josefa Rezabal Urquirizar

82 urterekin hil zen martxoaren 28an Zubietan



**OHARRA:** 2018ko apirilaren 20an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: apirilaren 16an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus



tan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauean. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna.

687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauean... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelohetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauean... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egingo. Interna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskar sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo

nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

#### BESTELAKOAK

Urrezko pultsera bat perla txuriduna galdu dugu. Ume batena da, txikia. Aurkitu baduzu deitu; 637 264 941

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. Telefono zenbakia: 637 974 994

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelohetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitokia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 12** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 13** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 14** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 15** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astlehena 16** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 17** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteazkena 18** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

## Apirilak 12 - Apirilak 22

**Osteguna 19** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 20** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Larunbata 21** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda apirila

## 12 osteguna

■ "Ainhoa eta Iñakiren aldeko kazerolada eta kartelada". 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 14 larunbata

■ Bizikletak konpontzeko tailerra. 09:30-13:00 artean, Udarregi Ikastolan.  
 ■ Udarregi Ikastolak 50 urte: bertso-bazkaria. 14:30ean Udarregi Ikastolako jangelan.

## 15 igandea

■ Ekainaren 10eko giza-katearen iragarki grabaketa. 09:00etan Usurbilgo plazan.  
 ■ "Gatz, titiritorto basatia" txotxongilo antzezlanak 17:00etan Sutegiko auditorioan.

## Igande arratsaldean txotxongilo ikuskizuna Sutegin

Maitena Illaramendik "Gatz, titiritorto basatia" txotxongilo antzezlan eskainiko du igandean Sutegin. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da emanaldia. Sarrerak, egunean bertan ipiniko dira salgai.

"Gatz Basatia titiritorto bat da. Bertzeke oihanaren sakonean bizi diren izaki bitxiak dira titiritortoak. 40 zm neurtzen dituzte gutxi gora behera, begi bakarrak, berdeak eta horiak, isats luze batekin. Basoan kamuflatzen dira, horregatik buruan ilearen ordez landareak dituzte, batzuetan basafritu eta gutzi. Zuhaitzen barruan bizi dira, okilek egindako zulotan".



Apirilaren 15ean, arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna. Sarrera, 2 euro.

### Gatz, titiritorto basatia

■ Apirilak 15 igandea, 17:00etan.  
 ■ Tokia: Sutegiko auditorioa.  
 ■ Sarrera: 2 euro.  
 ■ Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Psikomotrizitate saioa Bihurri ludotekan

Apirilaren 14an larunbatarekin, Bihurri ludotekan 15-36 hilabete bitarteko haurrei zuzenduriko psikomotrizitate saioa, Munia Larburu adituarekin. Goizez egingo da saioa. Taldeak antolatu asmoz izena aurrez eman beharko da 666093592 telefono zenbakira deituz. Bete beharreko baldintza: "haurrak oinez ibiltzen jakitea".

## Astlehenean, ate irekien eguna Haur Eskolan

2018-19 ikasturtean matrikulatzeko garaia apirilaren 16tik 27ra izango da. Deialdia, 2016, 2017 eta 2018an jaiotako haurrei zuzendua dago. Epe honen baitan, ate irekien eguna antolatu dute apirilaren 16an. 17:30ean euskarazko saioa, 18:30ean erdarazkoa. Informazio gehiagorako, deitu bulego orduetan (09:30-12:30) Haur Eskolara: 943 374 061.

## Datozenak

### Euskaraldia antolatzeko bilera

Apirilaren 17an asteartea, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Euskaraldia diseinatzen segitzeko deitu dute bilera eta aurrekoetan bezala, interesa duen herritar orok atea zabalik ditu.

### Haur minbiziaren inguruko errealitatea ezagutzeko bilera irekia

Hitz-Aho Udarregi ikastolako guraso-elkarteak antolatu du bilera. Apirilaren 18an asteazkena, arratsaldeko 17:00etan Udarregi Ikastolan. "Minbiziak askorentzat hitz debekatua jarraitzen du izaten, sufrimendua eta heriotza etortzen zaigu segituan burura. Gure gizartean gertatzen den errealitate bat da, nork ez du kasuren bat izan bere inguruan. Haur edo nerabe bat bada gaixorik dagoena zein da gure jarrera? Eta gure herri edo ikastetxe berekoa bada? Aspanogi-ren aldetik haur minbiziaren errealitatea ezagutarazi nahi dizuegu modu natural batean. Hitzaldi honetan zuen itxaropena eta parte hartzea bultzatu nahi dugu, denok elkaturik lagundu diezaiegun Aspanogiko pirata eta familiar".

**txirriStra**  
 TABERNA

-Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**ZENDOIA**  
**ENA** taberna  
 Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
 taberna

**Pintxo Bereziak**  
 943 37 10 42  
 Zubiaurrenea 5

# HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO  
2016, 2017 eta 2018 urteetan jaiotako haurrei zuzendua

- **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 16tik 27ra. Kalezarren.
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **MATRIKULAZIORAKO HITZORDUA:**  
943 374061 telefono zenbakira deitu 9:15-12:00etara.
- **ATE IREKIEN EGUNA:** apirilaren 16an, astelehena,  
17:30etan euskaraz eta 18:30etan gaztelaniaz.

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu.

 **943 374 061**




**serigrafia**


[serigiosu@serigrafiaiosu.com](mailto:serigiosu@serigrafiaiosu.com)

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)



Betiko Sagardoa





Sagar gazi eta gozoko aurreneko zuku tantak jaitsi dira.

**TXOTX 2018 Zabalik!**

**SAIZAR**  
Sagardotegia

**ABANGOARDIA & TRADIZIOA**

Kale Zahar, 39 - 20170 USURBIL (Gipuzkoa) -  **943 373 995** - [sidreria@sdrassalzar.com](mailto:sidreria@sdrassalzar.com)  
[www.sidrassalzar.com](http://www.sidrassalzar.com) 



Benetako  
**UNEAK**

Larunbat honetan, apirilaren 14an  
arratsaldeko 16:00etan,  
**UNE ITZELEZ** betetako Urbil berriak  
itxaroten zaitu.



[urbil.es](http://urbil.es)